


noaua

"DENON ARDURA DA ONGIZATE EMOZIONALEAN OINARRITUTAKO GIZARTEA ERAIKITZEA"

Puntu.eus Fundazioak Maddi Egizabal eta Malen Aierberen egitasmo bat saritu du / 16-17. or.



ARGAZKIA: NOAUA




ESK

**Pentsiodunen aldeko
145.142 sinadura
aurkeztu dituzte
Legebiltzarrean** / 05



USURBILGO UDALA

**Jon Howick Iriberri,
gidabaimena
euskaraz egiteagatik
saritua** / 10



ZUHEGAN

**"Bizitzako etapa
guztietan
garrantzitsua da
indarra lantzea"** / 14



USURBIL KE

**Usurbil KE-ko
senior neskak
Gipuzkoako Kopako
txapeldunak** / 19



EGUNeko MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera

8:00-00:00 Ostirala eta Larunbata

**Astelehenetik Igandera sukaldea 10etan ixten da*

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



G15 AGROPACI3N
DE INMOBILIARIAS
DE GIPUZKOA

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

ONENA AURREZ AURRE!

**SALEROSKETA
& ALOKAIRUAK**



688 739 733

g15usurbil.eus

info@g15usurbil.eus

Etxebeste Kalea, 15 Usurbil, Gipuzkoa




Hego Korea

IRTEERA 2025eko urrian



Noaooak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoo.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

LAB-eko Gipuzkoako helduen bilkura

Bilkura goiza izan zuten maiatzaren 27an Sutegin. Izan ere, LAB-ek sindikatuko Gipuzkoako helduak elkartu zituen aipatu kultur-etxeko auditorioan. Gai ezberdinak jorratu zituzten hitzordu horretan. Sindikatua-
ren irakurketa orokor konfederalarekin ekin zioten hitzorduari eta horren baitan; hila-
bete hasieran, maiatzaren 1eko Langileen Eguneko balorazioa egin zuten. Horrekin batera, gaurkotasun handiko gaiak ere ahotan hartu zituzten; hala nola, EAEko hezkuntza akordioa, jatorri eta kultur anizta-

suneta eta etxebizitzari lotutako gaiak.

Osasun mahaiak eta Osasun Publikoa Aurrera bilguneaz ere jardun ziren. Nola ez, baita Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak hilabetean bideratu duen Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadura bilketaz. Maiatzaren 15ean entregatu zituzten Eusko Legebiltzarrean, gaia eztabaidatua eta bideratua izan zedin. Kanpaina horri buruzko azalpenak jaso eta liburuxka banatu zuten Sutegiko bilkuran zehar.



Maiatzaren 27an Sutegin batu ziren.

Azkenik, LAB Helduak sailaren egituratzea eta datorren

agendaz ere aritu ziren batzar berean.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Azken asteotan izandako aldaketen ostean, ohiko ibilbideari emango dio segida Udalaren garbigune mugikorrak.

Azken egunotan Zubietan egon da eta ostegun honetan, ekainaren 5ean, Txokoaldera eramango dute garbigune mugikorra.

Ekainean arratsalde zabalduko dute KzGunea

Ekainaren 2tik aurrera, 16:00-20:00 artean zabalduko dute KzGunea. Honatx hurrengo asteotako ikastaroen berri:

- Ekainak 2-5, 18:00-20:00 "Facebook. Konektatu lagun eta senideekin".
- Ekainak 6-11, 16:00-18:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".

Ikasturte amaierako dantza poteoa

Udako emanaldiei ekin aurretik, 2024-25 ikasturtea boro-biltzeko dantza poteoa antolatu du Orbeldik ekainaren 13an. 19:00etan abiatuko da Oiardo kiroldegitik. "Gerturatu zaitez dantzara Orbeldiko helduen taldeekin batera. Kalejiran, plaza dantzak egingo ditugu elkarrekin dantzatzeko".

Etumeta literatura lehiaketako sari banaketa

Hirugarren literatura lehiaketako sariak ekainaren 4an banatuko ditu Etumeta AEK eskualtegiak, arratsaldeko 18:00etan Txiribogan. Bertan, edizio honetako irabazlea eta aipamena jasoko duten bi parte hartzaileen izenak emango dira ezagutzera. Ekitaldia irekia izango da.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritzalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (9)

Alaba txikiak alde egin zuen markesarenetik. Nazkatuta zegoen denek umetzat hartzen zutelako, eta graduari ez zegozkion trapuetan bildurik, atzeko atetik atera zen.

Arratsaldeko giroa pisutsua zen. Urkamendikoa eta gero, normalena hori zen. Kopetilun ikusten zituen usurbildarrak, eta inorekin begirada gurutzatuz gero, lurrera jaisten zuen harena. Ez zuen inork ezagutzerik nahi, eta noraezean, hara eta hona zebilen, beti iskin egiten hari edo honi.

Alferrik izan zen, ordea. Herriarren artean azkar asko zabaldu zen atzerritarren bat herrian bueltaka zebilela, eta soro baten ertzean, lau mutil hurbildu zitzaizkion kargu hartzera. Zakar galdetu zioten ea zer demontre ari zen han, baina neskak ez zuen erantzun nahi izan, eta bidean jarraitu zuen. Libre jardun nahi zuen, inori enbarazu egin gabe. Aitaren esanetara bizitzeaz gogaituta zegoen, eta handik eskapo egin eta gero, besteen esanetara ere ez zuen bizi nahi. Mundua ezagutu nahi zuen, bere begi propioekin ikusi nahi zuen ingurua.

“Ez al duzu mingainik hitz egiteko?”, berriro ere gazteek galdegin. Bidaia bat zela erantzun zien, ea horrela bakan uzten zioten. “Bidaia? Eta zer du bidaia batek Usurbilen egiteko? Ez esan txorakeriak!” Urrunetik garrasi bat entzun zen. Troiako alaba

gazteena zen zaldiari tiraka. Belarretan ibili eta gero, etxerako bidean zihoan. Eskandaluak harrituta, garrasika hasi zen berrehun bat metrotatik.

“Ez ditun hire interesekoak”, kargu hartu zion bildutako mutiletako batek. “Lauok bakkarrarekin egin nahian al zabilzate?” “Gezurretan zebilen bidaia bat besterik ez dun” “Ostatu beharrean izango duk, orduan, eta hori nire interesekoa baduk” “Zer dion?” “Ganbarako belar piloaren gainean ederki deskantsatzen duk, ez al hekien? Igo gurdira, eramango haut!”.

Troiako alabaren hitzak bere horretan konplitu zituen Sarroeko alabak. Belar pilaren gainean ondo eseri, eta han joan zen oso ondo nora jakin gabe. Baina gurdia balantzatzen zela, ia-ia lo kuluxka egiteraino erlaxatu zuen. Zeruari begiratzen zion, kolore gorriak blaitu zuen goi guztia, eta eguzkia mendebaldera etzaten zen, apal, gauaren beltza ekialdetik zabaltzen zen bitartean.

Troiara iritsitakoan, neska- ren esanak jarraitu zituen. Ezaguna zitzaion, baina ez zen gogoratzen nondik. Jarrera bortitza zeukan, basa, baina

**"TROIARA
IRITSITAKOAN,
NESKAREN ESANAK
JARRAITU ZITUEN"**

hala ere, goxotasunez hitz egiten zion, eta horrek konfiantza ematen zion. Xalo-xalo jarraitu zuen etxetik barrera, eta hirugarren goitian belar ondusko ohea eskaini zion. “Geroago igoko dinat mokaduren bat”, esan zion eskaileretatik.

Inoiz ez zen horrelako toki batean egon. Beti ibili zen palaziotik palaziora, nahiz eta batzuk kutreagoak izan. Halakoei txeritoki deitzen zuten, eta bizkarrera iseka egiteko aitzakia galanta ziren. Itxurakeriak uste bezainbesteko pisua zeukan handi usteko familietan. Neskari, ordea, ez zitzaion batere interesatzen halako ezer, munduan bidaia zeko ametsa zeukan, bere kabuz ezagutu nahi zuen, zeren liburu eta bitartekari guztiekin, ez zekien oso ondo nori sinetsi. Aitak esana zuen arratsalde hartan bertan: “Handitzen zarenean ikusi eta ikasiko duzu”. Baina zer? Aitak berak bezala ikustea nahi zuen, zuria zuri eta beltza beltz. Ez zegoen horrekin konforme. Mundua bestelakoa izan zitekeela sinesten zuen, eta horren bila abiatu-ko zen. Plan bat behar zuen, ordea, eta plan bat egiteko, energia behar. Eguna aztoragarria izan zen, eta nekeak jota zegoen. Arropa erantzi eta ohean botatzekotan zegoenean igo zen Troiako alaba. “Ogi eta gazta apur bat igo dinat”.

“Kuadrilen saltsak” Gaztelekuan

“Gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz, haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu” Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren “Treba Gurasoak” izeneko egitasmoak. Horren baitan, “kuadrilen saltsak: nerabeen arteko harreman-sareak” hizpide izango dituen saioa antolatu dute Gaztelekuak, Udalak eta Foru Aldundiak lankidetzan ekainaren 5ean, 16:30-18:30 artean Gaztelekuan, 12-16 urteko gazteentzat. Helburua, “Gipuzkoako nerabeek harremanak izateko dituzten moduei buruzko hausnarketarako espazio horizontaltal seguru bat sortzea da, kuadrila ardatz izanik”. Hitzordurako izena aurrez eman ahalko da doan, Gaztelekuan bertan edo usurbilkultura.eus plataforman.

Oporraldi aurreko irakurketa- -solasaldia gaztetxoentzat

Sutegi udal liburutegiak aste-bete barrurako antolatu du hurrengo saioa gaztetxoentzat:

Ekainak 12, osteguna

- 15:30 Irakurketa-solasaldia 11 urtetik gorakoentzat. Idoia Garzesen Kukuaren kantua (Elkar) liburua izango dute mintzagai.

- Oharra: solasaldietarako liburuak aleak eskuragarri dituzue liburutegian. Antolatzailea: Udal liburutegia.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrenea 2, **943 36 55 81**

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867



Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Gipuzkoan bildutako atxikimenduak biltzeko berriki eginiko agerraldia.

"Zorionak eman nahi dizkiegu bere sinadura eman duten guztiei"

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Herri Ekimen Legegilea bideratzeko atxikimendua eman duten guztiak eskertu ditu ohar bidez; tartean, noski, ekimenarekin bat eginiko usurbildarrak.

Herri Ekimen Legegile (HEL) bat aritu da sustatzen Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua, "Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" eta horren baitan, "14 ordain-saritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihur dadin", hilabeteotan gogorazazi dizuegunez. Horren baitan atxikimenduak biltzen aritu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Herriz herri jaso-

tako 145.142 sinadura entregatu zituzten maiatzaren 15ean Eusko Legebiltzarrean, goiz horretan egindako mobilizazioaren baitan. Gogoan izan, haietatik 524 atxikimendu Usurbilen jaso zirela aipatu mugimenduaren baitako herri ordezkariak Sutegi atarian hilabeteotan jarritako mahaian. "Aurrekaririk gabeko mobilizazio sozial" gisa definitu dute hilabeteotan lortutakoa.

"Mobilizazio hori posible izan da herriz herri aritu diren EHPMko" kideei esker. Datuokin, balantze positiboa egin dute. "Gutxieneko pentsioak Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %100era arte osatuko dituen Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadura bilketa arrakastatsua izan da". Horregatik, pentsiodunen mugimendutik "zorionak eman nahi dizkiegu legegintzako

herri-ekimena sinatu duten guztiei, haiek baitira garaipen honen protagonista nagusiak". Garaipen partekatua izan dela gogorazazi dute. Era berean, deitoratu nahi izan dute, "salbuespenak salbuespen, administrazioek Herri Ekimen Legegilea ezagutarazteko eta sinadura digitalak bildu ahal izateko legean jasotako beharrezko bitartekoak jarri ez izana".

"Oraindik ez dugu lortu"


Gogorazazi dutenez, ordea, helburua "oraindik ez dugu lortu". Erakundeek dute orain azken hitza. "EAEko gobernuak eta Legebiltzarrak Herri Ekimen Legegilea aintzat hartzea erabaki behar dute, legebiltzarreko osoko bilkuran eztaba-datu eta bozkatu dadin; parametro demokratiko zorrotzetatik, ez dago beste aukerarik. Ez dago hori eragozten duen inolako arrazoirik, ez eskumen alorrekorik, ez ekonomikorik". Horregatik, Eusko Legebiltzarri eta Eusko Jaurlaritzari galdegiten diete "kontsekuentek izan daitezela beren helburu nagusiarekin, hau da, euskal gizarte justu eta bidezkoa eraikitzea, genero-ekitatean eta aberastasunaren banaketa bidezkoan oinarritua".

"EAE-KO GOBERNUAK ETA LEGEBILTZARRAK HERRI EKIMEN LEGEGILEA AINTZAT HARTZEA ERABAKI BEHAR DUTE"

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

txirriStra
PLATER KONBINATUAK • BOKATAK • PINTXOAK
7ABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08



80 urterekin hil da Martin Larrañaga.



lazkoak dira bi argazkiak. Honako hau, Salbatore elizako kanpandorrean egina.

Martin Larrañaga joan da baina bere ekarpenak bizirik jarraitzen du

1983-1987 legealdian, Usurbilgo alkate izan zen. Dena den, bere ekarpena jardunbide politikotik haratago doa. Iaz, esate baterako, Txalaparta Festan hartu zuen parte.

Maiatzaren 30ean, hileta kanpaiak entzun ahal izan ziren Usurbilgo erdigunean. Martin Larrañaga Bajinetaren omenez ari ziren. 1983 eta 1987 urteen artean Usurbilgo alkate izan zen, EAJ alderdiaren izenean. Aurreko legealdian alderdi bereko zinegotzi ere izan zen Larrañaga. Gerora, udal hauteskundeetarako EAKo hautagaien zerrendan parte hartu zuen Larrañagak.

Heriotzaren berri izan eta gutxira, Agurtzane Solaberrieta egungo alkateak sare sozialen bidez omendu nahi izan zuen alkate ohia. "Mila esker herria egiteagatik eta lurragoxo har zaitzala!", adierazi zion sare sozialen bidez.

Artzetarren ohitura berpizten
Albiste honi lotutako argazkiak, jendaurreko azken ekitaldian parte hartu zuenekoak

dira. Iazko azaroan atera genituen. Jexux Artze Kultur Elkartek antolaturiko Txalaparta Festa ospatu zen egunekoak dira, hain zuzen. Eskubiko irudian Martin Larrañaga ageri da Salbatore elizako kanpandorreko ezkilak jotzen. 1996an galdutako herri ohitura berreskuratzeko ohorea izan zuen Larrañagak iragan azaroaren 9an.

Garai batean, 1980an hasi eta 1996ra arte, urteko egun seinalatuetan Artzetarrek abiarazitako ohitura, galdua zena berreskuratu zuen egun hartan, ohorezko gonbidatuekin, gainera. Martin Larrañaga izan zen 1996an, ohitura hau galtzear zela, ezkilak jotzen ibili zen azkenetakoa. 30 urte eta gero, Martin Larrañagarekin batera aritu ziren zeregin berean Jexux Artze Kultur Elkarteko kideak.

**"MILA ESKER
HERRIA
EGITEAGATIK.
LURRAK GOXO
HAR ZAITZALA"**

AGURTZANE SOLABERRIETA

Ikurriñaren omenezko ekitaldian

2013ko udaberrian, Hego Euskal Herriko udalerri guztiak espainiar bandera jartzera behartuak izan ziren. "Legearen inposizioa" salatu eta "bere erabateko desadostasuna" agertu zuen Usurbilgo Udalak, Bilduk eta Aralarrek aurkeztu eta udalbatzak gehiengo osoz onarturiko mozioaren bidez.

Honilotuta, Udalak ikurriñaren omenezko ekitaldi bat

antolatu zuen 2013ko maiatzaren 4an. Ordura arte, legeintzaldi desberdinetan alkatetzan egondako hainbat herritar gonbidatu zituzten: Andres Bruño, Martin Larrañaga, Joxe Antonio Altunaren ordezkari alkate Agustin Lizaso eta Xabier Mikel Errekondo. Urte hartan, Mertxe Aizpurua zen alkatea, Bildu koalizioa ordezkatzuz.



Ezkerretik hasita: Agustin Lizaso, Andres Bruño, Mertxe Aizpurua, Martin Larrañaga eta Xabier Mikel Errekondo, ikurriñaren omenezko ekitaldian.

IRITZIA



LUISMARI ORMAETXEA USURBILGO ALKATEA (2003-2007)

Usurbil hobeago bat egin duzu, pertsona hobeagoak egin gaituzu

Hitz hauek Jaunaren igokundearen egunean idazten ditut: Martin, Goian Bego. Martini bere politikagintza jarduera urte latzetan garatzea tokatu zitzaion. Oso gogorrak. Ausardia behar zuen izan bere pentsaera humanista politika esparrura eramateko. Arrisku haundiko garaiak. Aurten, uztailearen 31n, 50 urte betetzen dira Francisco Exposito Camio, ETako hiltzaile batzuk, tiroz akabatu zutela frontoi atzean.

Tiro-hots haien oihartzuna oraindik entzuten zirela Martinek pauso bat aurrera eman zuen. Ausarta gizona. Bere herrigintzaren ezaugarria, udal erantzukizunei loturikoa batez ere, apaltasuna izan zen. Lasaitasunetik, adostasunak bilatu nahiez beti, bere printzipio etiko-politikoiei muzin egin gabe. Martin, gizon apala. Martin, gizon koherentea. Nigan eragina izan duen pertsona izan da:

zalantza baten aurrean, irakaspén bat; akats baten aurrean, gogoeta bat; beldur baten aurrean, enpatiazko begirada; eta beti, irrifar bat, irrifar konplize bat. Martin, Usurbil hobeago bat egin duzu, pertsona hobeagoak egin gaituzu. Martin, Egun Haundirarte, gero arte.

IRITZIA



USURBILGO
EAJ-PNV

Garai gogor eta zailenetan politika egitea egokitu zitzaion

Martin Larrañagak utzi gaitu. Beste ezeren gainetik, bere abertzaletasuna balioan jarri behar da, herriarekiko maitasuna. EAJ-PNVren eskutik Usurbilgo alkate izan zen 1983-87 agintaldian. Garai gogor eta zailenetan politika egitea egokitu zitzaion; indarkeria eta tentsio politiko handiko garai zailetan lehen lerroan jardun zen. Geroztik, herrigintzan egindako lana azpimarratu nahi genuke, Usurbilgo kultur ondarea balioan jartzen ekarpen zabala egin zuen. Agur eta ohore.

IRITZIA



MERTXE AIZPURUA USURBILGO ALKATEA (2011-2015), EH BILDUKO DIPUTATUA ESPAINIAKO KONGRESUAN

Adiorik ez, Martin

Irribarre hori ez galdu Madrilen! Hauxe zen aholku bat bailitzan topo egiten genuen bakoitzean Martin Larrañagak luzatzen zidan mezua. Elkarrizketa bukatzeko formula izan zitekeen edo hasierari heltzeko modua, baina ikusi orduko, banekien nola edo hala aipamen hori eramango nuela nirekin. Kode berezi bat zen, zertaz ari ginen ondo baigenekien biek. 2013an Udalak, bandera espainiarra jartzeko jaso zuen aginduaren aurrean, ikurriña omentzeko ekitaldia antolatu genuen.

Ekitaldi honen inguruan, eta aurretik izandako alkate ohiek bildu genituenean, ezagutu nuen gehiago Martin Larrañaga. Hortik aurrera, gehienetan elkarrizketa laburrak izan ditut berarekin, baina minutu horiek beti ematen zidaten eduki berriei irekitzeko bidea eta, batez ere, niretzat ezezagunak ziren fazeta berriak deskubritzeko: untzigintzaren ezagutza edota gerra garaiko gertakariak ... Sorpresaz betetako pertsona bat bezala ikusi dut azken

urteotan Martin Larrañaga eta horrela adierazi nion behin baino gehiagotan. Berarekin hartu-emana izan dudán guztietan ideia bereziak buruan zebilzkiola aritzen zen, baita kontu zaharrez hitz egiteko beta zegoenean ere. Politika ongi jarraitzen zuen; gertutik, gertakizunei eta deklarazioei jarraipen hari bat eskainiz beti. Garai bateko giroa biziberritzeko gaitasuna aparta zuela iruditu zitzaidan behin, nahiz eta gogo handirik ez zuen izan aspaldiko kontuez

–seguru asko mina eragiten zietelako– hitz egiteko. Izan zirelako? Bai. Martin Larrañagak ere herriaren, euskararen eta euskal kulturaren basabideetan hamaika kilometro egin zituen, bidezidor horiek halako baten errepide zabala bihurtuko ziren itxaropenarekin. Pertsona berezia, irakurle sutua, euskal kultura eta kultura unibertsalaz jantzia eta Usurbilgo alkatea. Adiorik ez, Martin, eta bai, irrifarre egiten jarraituko dugu!



"Erraustegiak egunero kutsatzen gaitu. Erraustegia gelditu!" aldarripean, maiatzaren 24an eginiko elkarretaratzea.

Erraustegia behingoz geratzeko deia

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, elkarretaratzea egin zuten maiatzaren 24an Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarian. Egunotan, bestalde, Gipuzkoako Hondakinen Kontsортzioak GuraSOS ekonomikoki "ito" egin nahi duela salatu du elkarteak berak.

Erraustegia geratzeko eskatu eta egunero "inguruko pertsonak, animaliak, landareak, lurzorua eta ingurumen guztia" kutsatzen ari dela ohartarazteko, soka batekin lotutako hainbat kartel eseki zituzten eta haiek eusten hainbat gipuzkoar, tartean, ohi bezala herrikideak. Errausketaren Aurkako Mugimenduak hilaren 24an Gipuzkoako Foru Aldundi atarian antolaturiko elkarretaratzeak giza kate itxura hartu zuen. Besteak beste, erraustegia geratzeko eta osasuna zaintzeko eskaerak biltzen zituzten kartel horiek, "kutsatzailea, garestia, bidegabea, alferrikakoa delako". Eragiten duen kutsadura ohartarazten zuen beste batek; "erraustegiak zabaltzen

ditu dioxinak, furanoak, PFAS "kutsatzaile eternoak", metal astunak...".

Egoera horretan, "aginte publikoek ez dute betetzen beren eginkizuna erraustegia bezalako fabrika arriskutsuak kontrolatzeko", ohartarazi zuten eta, gainera, Aldundiaren egoitza atarian salatu zutenenez, "erraustegiari ezetz esaten zion herritarraren hitza" kontuan hartu ez eta "beren erabakietatik kanpo utzi dituzte herritarrak eta mugimendu sozialak". Aipamen zehatza egin zioten GuraSOS elkarteari. "Orain, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak arrazoi eman diotenean GuraSOSi, hainbeste urte pasa eta gero, hainbeste kalte eragin eta gero, orain zer egin behar dute Foru

Aldundiak eta erraustegiaren propagandistek?".

"GHK-k GuraSOS ito nahi du" Gipuzkoako Hondakinen Kontsортzioak (GHK) GuraSOS ekonomikoki ito egin nahi duela salatu du aipatu elkarteak, "Auzitegi Konstituzionalak elkarteari epaitegiataraz jotzeko legitimazio aktiboa aitortu eta aste batzuetara".

"GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAK (GHK) GURASOS ELKARTEA ITO NAHI DU BIDE EKONOMIKOTIK"

Izan ere, "Auzitegi Konstituzionalak GuraSOSi babes eman eta aste gutxira, errauskailuaren ingurumen baime-naren aurka helegitea jartzeko legitimazio aktiboa aitortuz, elkarteak zuzendaritza batzordeko hiru kideak Bake Epaitegi-tan deitu dituzte GHK-k hainbat kostu judizial ordaintzeko eskatzen dien demanda helarazteko (8.420 euro). Kostu horietako batzuk, hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak aztertutako kasuari dagozkio".

"Oso larria eta ezohikoa"

Testuinguru horretan, GuraSOSetik gogorarazi dute, "erraustegiaren kudeaketan irregulartasun larriak" salatzeko elkarteak berak abiarazitako ekintza judizialen aurrean, dagozkion barne ikerketak hasi eta erantzukizunak garbitu beharrean, sakaketa jarri duen elkarteak mehatxatu eta erasotzen" ari dela GHK. Ez soilik elkarteak, baita "personalki bertako kideak, herritarrek erabilitako kontrola desagertzea eta ezabatzea bilatuz". Horregatik, oso kezkatua agertu da GuraSOS "euskal erakundeek ingurumen arloan duten noraez antide-mokratikoagatik". Elkarte honen esanetan, "oso larria eta ezohikoa iruditzen zaigu administrazio batek herritarren kritika eta kontrola desager-rarazi nahi izatea, mehatxuen eta bahiketen bidez disuaditzen saiatuz, asoziazionismoa eta osasunaren eta ingurumenaren defentsa bera arriskuan jarritz". Horregatik, agintariei dei egiten diete "proiektuaren inguruan dagoen ingurumen defizit demokratikoa zuzentzeko, proiektuari zilegitasunez erantzuten dioten ekimen sozialen aurrean duten jarra-etsai eta mespretxagarria uzteko, eta elkarriketarako eta elkarlanerako bideari ekiteko, Kontrol Demokratiko-rako Mahaiaren inguruan parte-hartzean eta akordioan oinarritutako irtenbidea lor-tzeko".



Tafallan ospatuko da ekainaren 22an.

Euskal Herria Kantuz Egunerako prestatzen ari da Kantu Taldea

Euskal Herriko Kantu Taldeen sareak Euskal Herria Kantuz Eguna antolatu du ekainaren 22an Nafarroako Tafallan. Iaz ez zuten egiterik izan. Aurten, ordea, "kostata" aipatu saretik zehaztu dutenez, baina "Tafallan bilduko ditugu Euskal Herri osoko kantu taldeak, kantuak oinarri hartuta guztion artean gure kultura, ondare musikala, eta hizkuntzari beste bultzada bat emateko. Zorionak Nafarroako kantuzaleei eta batez ere Tafallako taldeari".

Prestaketak aurrez

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak bat egin du ospakizun egun horrekin. Autobus zerbitzua antolatu dute. Maiatzaren 31 baino lehen eman beharra zegoen izena hara joateko. "Euskaraz, kantuan eta kontuan arituz, lagunarte ederrean egun zoragarri bat pasatzeko aukera ezin hobea" izango da, iragarri dutenez.

Tafallako jaialdian parte hartzea prestatzeko datozen astelehenetan, hau da, ekainaren 9an eta 16an entsegu saioak antolatu ditu Kantu Taldeak, ohi bezala, arratsal-

deko 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Kantu Taldetik Euskal Herria Kantuz Egunaren egitarauaren nondik norakoak zehaztu dituzte. Segidan dituzue:

Euskal Herria Kantuz Eguna 2025

Ekainak 22, igandea

- 09:00 Autobusa irtengo da Kiroldegi aurretik.
- 11:00 Kantu talde guztien topaketa eta hamaiketako Tafallako plazan.
- 12:00 Ongi etorria, Fermin Balentziari omenaldi xumea, kantuak eta kantujira.
- 13:30 Kantujiraren amaiera Tafallako plazan erraldoiekin batera.
- 14:30 Herri bazkaria Ereta parkean (eguraldi txarra bada Ereta pilotalekuan). Menua: entsalada mixta, paella, arkumea, gazta tarta, kafea, likoreak, ogia eta ardoa. Prezioa: 30 euro, propio egun honetarako aterako duten kantu liburuxka barne.
- 17:00 Bazkalosteko kantu saioa eta jauzi-dantzak.
- 21:00 Usurbilen izango ginateke.



Ekainaren 19tik 24ra ospatuko dira Kalezarko jaiak.

Udako jaien denboraldia hastear da

Hastear dugu udako festen denboraldia. Bi aste barru ekingo zaio urte garai horri Kalezarren. Honahemen, bertako jai batzordeak iragarritako ekitaldien berri:

Ekainak 19, osteguna

- 19:00 "Kalezarko San Juan Sua 1985-2015" diaporama Pelaiotenean.
- Zehaztasunak: "Iñaki Agirresarobek ateratako argazkien bidez 25 minutuko erreportajeaz gozatzeko aukera".

Ekainak 20, ostirala

- 16:30 Txupinazoa eta jaien hasiera.
- Ondoren, buruhandiak.
- 18:00 Auzotarren arteko herri kirolak.
- 20:00 Kalezartarren afaria.
- 23:00 Kontzertuak: Oilar Beltzak, Auskalo Taldea, Hazas & Jagoba.

Ekainak 21, larunbata: Oilasko biltzaileen eguna

- 10:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.
- 16:00 Musa (izena ematea 15.30ean irekiko da).
- 18:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, Lauburu konpartsa-irteera.

- 00:00 Kontzertuak: Gabezin Taldea, DJ Tintz.

Ekainak 22, igandea: Umeen eguna

- 10:30 Umeen krosa (izena ematea 10.00etan hasiko da).
- 11:30 Jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 14:00 Umeen bazkaria (norberak etxetik eramanda, postrea eta edaria jai batzordearen kontu).
- 16:00 Tailerrak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:30 DJ GorkaMendi.

Ekainak 23, astelehena: San Juan bezpera

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 22:00 San Juan sua.

Ekainak 24, asteartea: San Juan eguna

- 11:00 Meza nagusia.
- Ondoren, toka txapelketa.
- 16:30 Buruhandiak.
- 18:00 Sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik, Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak girotuta.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



Buruntzaldeko udalen kanpainako saritu Jon Howick Iriberry, Maialen Iñarra euskara alorreko udal zinegotziarekin.

"Euskaraz bizi den edonork erraz egingo du"

JON HOWICK IRIBERRI BURUNTZALDEKO UDALEN KANPAINAKO SARITUA

Buruntzaldeko udalek 400 euroko sariak zozketatzen dituzte, alor hau euskalduntzeko xedez, gidabaimena hizkuntza berean ateratzen dutenen artean. Iazko Usurbilgo saritua duzue irudian.

Zergatik erabaki zenuen gidabaimena euskaraz prestatzea?

Jon Howick Iriberry: Betidanik euskaraz bizi izan naiz. Orduan, sari hau egokitu zitekeela jakin gabe, logikoa zen gidabaimena baita hizkuntza berean prestatzea.

Nola moldatu zinen zati teorikoa prestatzeko?

Nire aldetik prestatu nuen etxean. Testak ikasten hasi nintzen. Zalantza teknikoren bat izanez gero, Interneten begiratzen nuen.

Zati praktikoak euskalduntzeke segitzen du. Nolakoa da hizkuntza aldaketaren jauzi hori alderdi teorikotik praktikora?

Klaseak euskaraz izaten nituen elkarrizketa aldetik. Jarraibideak gaztelaraz jasotzen nituen ohitzen joateko. Izan ere, aztertzaileak normalean ez dira euskaldunak izaten. Ondo legoke haiek euskaraz jakitea eta, hartara, azterketa praktikoak euskaraz izatea. Baina oraindik zaila da, aztertzaile

gutxi dago orohar eta asko Euskal Herritik kanpokoak dira. Entzun izan dut baten bat badela euskaraz dakiena baina gutxi daude.

Aztertzaile falta egon izan da aurreko urteetan. Atzerapenik eragin dizu zuri?

"EUSKARAZ BIZI NAIZ. LOGIKOA ZEN GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATZEA"

"ZURE ONERAKO DA ETA BIDE BATEZ, EUSKARAREN ERABILERA BULTZATUKO DUZU"

Pandemia ostean, klaseak hasteko itxaroteko denbora asko luzatu zen. Baina zortea izan nuen. Unibertsitateko klaseak arratsaldean izaten nituen, gidabaimenaren zati praktikoa prestatzeko saioak goizez izan nitzakeen eta hartara, hilabete eta erdi murrizten zen itxaronaldia.

Gidabaimena zertarako atera nahi zenuen?

Gehienbat askatasun pixka bat izateko, autonomia gehiago, beti gurasoei hara eta hona eramatea eskatzen ez ibiltzeko. Entrenatzera joateko baliatu nahi nuen gidabaimena. Golfean aritzen naiz eta Andoainen entrenatzen dut. Beste zereginetarako garraio zerbitzu publikoa balia dezaket, baina kasu horretan, entrenamendu lekua mendian egonik, ibilgailua derrigorrezkoa da. Gainerakoan, arreba gazteagoa izan, ezin duenez gidatu eta denbora libre gehiago dudanez, haien ordeztu nahi nuen eramateaz neroni arduratzen naiz.

Golfa zaletasun moduan praktikatzen duzu?

Txikitatik ibili izan naiz. 4-5 urterekin hasi nintzen. Izan nuen garai bat gehiago lehiatzen nintzena Euskadi mailan, saiatzen nintzen Espainiara sailkatzen. Ez zitzaidan batera gustatzen ingurua, lehiakorregia zen. Egun, lehiatzen segitzen dut baina zaletasun gisa praktikatzen dut, ondo pasa eta jendea ezagutzeko.

Zergatik aholkatu gidabaimena ateratzerakoan hizkuntza gisa euskara hautatzea?

Euskaraz bizi den edonork erraz egingo du euskaraz. Zure onerako bada eta, bide batez, euskararen erabilera bultzatuko duzu.

Saria lagungarria ere bada, gidabaimena ateratzea ez baita merkea.

Ikasten ari naiz eta oso lagungarria da.



Zumarte Musika Eskolan belaunaldiarteko topaketa egin zuten maiatzaren 29an.

Zumarte, 40. urtemugako jaiegun nagusiaren bidean

Lau hamarkada betetako musika eskolak urtemuga ekimen zikloaren baitan segiko du asteotan, ekainaren 14ra arte.

Azken egunotan, batetik, bere ibilbidea ikusgai jarri du Sutegin. Berrogei urteotan bideraturiko dinamika, kontzertu, jaialdi eta askoz gehiagoren irudi eta bideoak izan dira ikusgai kultur-etxeko

erakustaretoan eta, noski, bereziki, bertatik igarotako belaunaldi askotako herritarrenak. Bestalde, Zumarte Musika Eskolaren baitan, belaunaldiarteko topaketa egin zuten maiatzaren 29an.

Bitan elkartu ohi dira; urte amaieran, negu hasierako ospakizunen atarian eta orain, udaberri amaiera honetan. Belaunaldiarteko topaketa izaten da. Usurbilgo Egune-ko Arreta, Egune-ko Zentroa,

Egurtzegiko egoiliarak eta etxeko zerbitzua baliatzen duten 35 lagun izan zituzten bisitan aurreko astean. Gunea bisitatzeaz gain, bertako musika instrumentuak erabiltzeko aukera izan zuten.

Zumartek 40 urte

Ekainak 4, asteazkena

• 18:30 Abesbatzen kontzertua Sutegin.

Ekainak 8, igandea

• 12:00 Altsasu-Usurbil Saxo taldearen kalejira.

Ekainak 12, osteguna

• 18:30 Kantu modernoko ikasleen kontzertua Sutegin.

Ekainak 14, larunbata

• 11:00-13:00 40. urtemugako ibilaldi musikatua. Kalejira eta gune desberdinetan emanaldiak: Potxoenean, Artzabalen, Sagardoaren Plazan, Kale Nagusia 10 pasabidean, Olanoe-
nean eta Zumarten.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola, Udala.

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

MAIATZAREN 29AN BELAUNALDI ARTEKO TOPAKETA EGIN ZUTEN MUSIKA ESKOLAN



Zumarteren ibilbidea erakusketa batean laburbildu dute.



Belaunaldi ezberdinak igaro dira urteotan Zumarte Musika Eskolatik.



Usurbil K.E.-ko senior mutilen taldeak lehen nazional mailara igotzea lortu zuen duela bi asteburu.

"Etorkizunari begira, erabakiak hartu beharko dira"

SENIOR MUTILEN TALDEA USURBIL KIROL ELKARTEA

Usurbil Kirol Elkartea eta, nola ez, senior mutilen taldea pozarren bizitzen ari da berriki lehen nazional mailara igo izana. Erronka handia dute, ordea, eskuartean hurrengo denboraldira begira.

Maila igoera eskuratuta pozik, baina aurrean ahalegin handia eskatuko dien erronka baten atarian dira Usurbil Kirol Elkarteko senior mutilak. Egunotako une gozoen ondotik, 2025-26 denboraldira begira jartzeko garaia da. Lerrootan, talde nahiz klub gisa irailetik aurrera eskuartean izango dituzten egitasmoei buruzko hainbat xehetasunen berri.

Zer moduz dago senior mutilen eskubaloien taldea, maila igoera historikoaren ostean?

Xabat Beloki: Egunez aurrera egin ahala, uste dugu barneratzen joango garela lortutakoaren garrantzia eta duen dimentsioa. Taldea oso in-

dartsu iritsi da denboraldi amaierara eta Euskadiko txapeldun izatea inflexio-puntua izan delako gaude. Hila-beteko geldialdia izan dugu Espainiako sektorea jokatu aurretik eta denbora-tarte horretan, buruz oso indartsu jarri gara; batez ere, gure buruan asko sinetsi dugulako,

"USURBIL ESKUBALOIAREN HERRIA IZAN DELA ETA ORAINDIK ERE BADELA ERAKUTSI DUGU"

eta horrek taldea gehiago indartzea ekarri du.

Zer esanahi du garaipen honek taldearentzat? Eta Usurbil Kirol Elkartearentzat?

Taldearentzat hamarrek denboraldi bati bukaera ezinhobe ematea. Klubarentzat, txartel horia. Kluba ez da nahikoa

"ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU COLINDRESEN EGONDAKOEI ETA TABERNETAKO JARRAITZAILEEI"

prestatu igoera hau berme guztiekin etorkizunera begira ondo antolatua egoteko. Eta igoerarekin orain klubak zirt edo zart egin beharko du, gauza asko sakrifikatu edo etorkizunera begira jarri beharko du, oinarria hobeto lantzeko.

Bestalde, bai klubarentzat, eta baita herriari begira ere erakusleioa izan dela esango genuke. Herritar asko izan dira Colindresen guri animatzen, zehazki, ehun herritarretik gora. Hori izan da garaipenik handiena, zalantzarik gabe. Usurbil eskubaloien herria izan dela, eta oraindik ere badela erakutsi dugu. Horiek horrela, taldearen partez, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Colindresen egondakoei eta baita herriko tabernetatik jarraitu gaituzten herritar guztiei ere.

Kanpotik badirudi zailtasun handirik gabe heldu zaretela honaino. Talde barrutik, ordea, nola bizi izan duzue azken txanpa hau?

Lan asko dago taldekide guztien partetik, zalantzarik gabe. Liga hasieran zalantzak izan genituen, baina denboraldiaren bukaerara jendea oso indartsu iritsi da eta oraindik ere olatuaren apar gainean dagoela, gaudela, esango genuke. Hala ere, etorkizunari begira erabakiak hartu beharko dira eta horretarako burua hotz eta oinak lurrean jarri behar dira.

Ohi den moduan, lanketa prozesu luze baten emaitza da honakoa. Zer osagai izan ditu prozesu horrek?

Prozesua ez da batere erraza izan. Duela bi urte gehienak senior lehenengo urtekoak edo bigarren urtekoak ziren, oso talde gaztea bere osotasunean. Entrenatzaile gisa senior mailako talde bat entrenatzeko lehen esperientzia izan zen. Gogotsu hartu genuen. Lehen denboraldiaren balantzea oso positiboa izan zen. Detalle batzuen ondorioz,

—> ez ginen igoera fasera sailkatu. Horren ondorioz, aurtengo denboraldirako garbi genuen beste pare bat jokalaria behar genituela maila igotzeko. Hortaz, eskubaloia utzita zeukaten Unai eta Ander gurekin batu ziren. Taldeari esperientzia handia eman diote eta gaztetasun eta esperientziaren binomio horretan asmatu dugulakoan gaude.

Denboraldi amaierara heldu zarete. Balantzea egiteko ordua izan ohi da. Zer nolako kirol urte itxiera izango du Usurbil K.E.-k?

Kantxan lortutako kirol lorpenek poztasun handia dakarten arren, arrakasta horietatik datozen arduren kudeaketa egokia erronka handia da. Atzera begira jarrita bakarrik, eta datorrenari begiratu gabe, Saizar Usurbil taldea 2. Nazionalera txapeldun eta 1. Nazionalera igotzeaz gain, kadete mutilek ere, adibidez, Euskal Ligan jokatzeko lortu dute. Senior nesken Urbil Usurbil taldeak, nahiz eta jokalaria gutxiarekin egon lesioengatik, asteburu honetan Gipuzkoako Kopa irabazi dute. Beste taldeek ere euren kirol-formakuntzan salto handia egin dute. Prestaketa fisikoan aurrerapen handia egin dute talde guztiek AZ-ren lagun-tzari esker.

Zer dakar hurrengo denboraldiak Usurbil Kirol Elkartearentzat? Zeintzuk dira elkartearen erronkak?

Lehenik eta behin, entrenatzaile gisa Usurbil K.E.-n ez dudala jarraituko 2025-2026 denboraldian adierazi nahi dut, beste erronka batzuen aldeko apustua egitea erabaki nuen orain dela lau bat hilabete.

Hori dela-eta, lerro hauek aprobeztatu nahi ditut eskerak emateko taldeari, nire ondoan egon diren Julen, Xabi eta Beñati, eta azkenik, Kirol Elkarteari. Hala ere, gertutik jarraituko dut taldea eta kluba. Denboraldi oso



Usurbil K.E.-ren senior mutilak, lagun, senide eta herritarrekin mailaz igo berritan, Oiardon egin zitzaizen harreran.

gogorra izango da, batez ere, lehen taldea Lehen Nazionalera aterata nahi bada. Zuzendaritza batzorde berria egongo da, eta hartu behar duen lehenengo erabakia ez da batere erraza izango. Talde honek zer merezi duen ez dago zalantzan. Beste askok baino gehiago merezi du ziurrenik. Baina nahikoa baliabide ba al ditu taldeak eta klubak kirol mailan momentu honetan horrelako erronka bati eusteko?

Bestalde, talde hori alde batera utzita, eskubaloia eskola sortzera doa kluba, LH3-tik aurrera eskubaloia egin nahi duen orok praktikatzeko aukera izan dezan. Datorren ikasturtetik aurrera derrigorrezkoa izango ez den arren, Zirimarán umeak apuntatzea ere interesgarria da, psikomotritzitate eta kirol esparruak osotasunean lantzeko.

"GAZTETASUN ETA ESPERIENTZIAREN BINOMIOAREKIN ASMATU DUGULAKOAN GAUDE"

Horrela bada, beste erronka izango litzateke maila guztietan (benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior) gutxienez talde bana izatea. Maila batzuetan, kadete nesketan adibidez, inoiz baino jokalaria gehiago apuntatuko direla aurreikusten da, eta hau ere ondo kudeatu beharko da.

Kirol Zuzendari berri bat ere egongo da, eta orain arteko kirol plangintza mantendu eta hobetzea garrantzitsua izango da, batez ere neska-mutilak hazten doazen heinean kategoria ezberdinen arteko jauziak leuntzeko. Komunikazio arloan ere asko du hobetzeko Usurbil Kirol Elkartea, bai barne-komunikazioan, zein zaleei edota herriari albisteak edota erabakiak komunikatzeko garaian. Ekonomikoki ere badu zer hobetzeko klubak: diru-sarrerak gehiago sortu beharko ditu, detektatuta dauden ga-

"ERABAKIAK HARTU BEHARKO DIRA ETA GOGORRAK IZANGO DIRA, EDOZEIN HARTUTA ERE"

beziei erantzun, eta kirol erronka berriei indarrez erantzun ahal izateko.

Senior mutilen taldearentzat zer aldaketa ekarriko ditu maila igoerak uda osteko hurrengo denboraldian?

Aurretik azaldu moduan, erabakiak hartu beharko dira eta gogorrak izango dira edozein hartuta ere. Begira dezagun etorkizunera, hemendik 2, 4 edo 6 urtera. Zer-nolako taldea eta kluba nahi dugu? Orain ari gara hori ereiten, eta horretarako, orainean baino etorkizunean jarri beharko genuke fokua. Igotzea erabakitzen bada, taldeak esfortzu handiagoa egin beharko du, batez ere konpromezu aldetik. Lau entrenamendu egin beharko lirateke, kanpotik jendea fitxatu, arlo fisikoan jauzi handiagoa eman... Kontuan izan behar da maila bereko beste talde batzuetan jokalaria eskubaloian aritzeaz bizi direla; alegia, hori dela haien ogibidea. Zer esanik ez entrenatzaileen kasuan, soldatapean daude entrenatzaile gehienak, eta talde batzuk egunean bi aldiz entrenatzen dute. Azaldutako hori guztia da aurrean izango duena Usurbilek mailaz igotzea erabakitzen badu.



Kiroldegiak antolatu dituen indar entrenamenduetan "40-50 urtetik gorako jende ugari eman du izena".

"Bizitzako etapa guztietan garrantzitsua da indarra lantzea"

AINARA MANTEROLA ENTRENATZAILEA, PRESTATZAILEA

Zuhenganen egiten du lan gaurko protagonistak, eta kiroldegian antolatu dituzten indar entrenamenduak gidatzeaz arduratzen ari da. Ekimenak ikaragarritzko arrakasta izan du.

Emakumeentzako indar entrenamenduak harrera ikaragarria izan du eta saio gehiago jarri behar izan dituzue. Zein da gehien animatu den profila?

Adin askotako jendeak eman duela izena uste dut. Kiroldegiko eta udaletxeko ardura-dunak izan dira izen emate kontuetan lanean aritu direnak, baina denetarik jendea hartuko dugu. Adin taldeka banatu dituzte saioak, eta dei-garria izan badaiteke ere, 40-50 urtetik gorako jende ugari eman du izena. Gero

eta kontzientzia gehiago dago kirola egitearekin, eta indar entrenamenduak egitearekin. Bizitzako etapa guztietan da garrantzitsua, baina emaku-

"GERO ETA KONTZIENTZIA GEHIAGO DAGO KIROLA EGIN ETA INDARRA LANTZEAREKIN"

meentzat menopausia aurreko fase horretan, menopausian bertan eta hurrengo urteetan indarra lantzea oso-oso garrantzitsua da. Geroz eta kul-

"INTERESGARRIENA GANTZ GUTXI ETA GIHAR GEHIAGO IZATEA DA, OSASUNTSU EGOTEKO"

tura eta interes gehiago dago horretan aritzeko. Zerbait ondo egiten ari garen sentsazioa daukat geroz eta interes gehiago dagoelako eta osasunaren alderdi asko erdigunean jartzen direlako horrela.

Emakumeei historikoki kardio egiteko gomendatu izan zaie argal egoteko, baina azken urteetako ikerketek erakutsi dute indar entrenamendua oso garrantzitsua dela emakumeentzat ere. Zergatik?

Mito faltsu bat da. Pisua eta gantza jaisteko lan aerobikoaz gain, lan anaerobikoa egitea funtsezkoa dela erakutsi dute azken urteetan egindako ikerketek. Zenbat eta gihar gehiago izan, geldirik gaudenean gastu kalorikoa edo behar dugun energia handiagoa da. Interesgarriena gantz gutxi eta gihar gehiago izatea da, osasuntsu egoteko.

Adin guztietan egin behar dira indar ariketak?

Bai, beti. Mugimendu patroiak umetatik sartuta izaten ditugu, normalean eta edozein momentu da ona hasteko. Egia da haur txikien kasuan kirola jolasen bidez bideratzen dugula, hori da gomendagarriena, baina berez arazorik ez luke izan behar. Guk udan 10-12 urteko gaztetxoekin saio batzuk izango ditugu, eta jakina, pisua eta teknikak euren adin eta mailara egokituko ditugu, baina edonorentzat izan daiteke onuragarria adin horretan indarra lantzen has-tea. Patroiak segituan barneratzen dituzte. Pisua adin taldearen arabera moldatu beharko litzateke eta modu indibidualean bakoitzaren beharrak ulertzea. Mito asko daude indar entrenamendua-ren gainean, adibidez, jendeak uste du umea zarenean indarra landuta oso baxua izango zarela. Hori erabat gezurra.

Egunero orduak gimnasia dena ematera joan behar da? Zenbat egun gomendatzen dituzue?

→ Pertsona sedentario barentzat, hasieran pixka bat ikasi arte norbaitekin ikatea komeni da. Astean bi edo hiru aldiz entrenatzea oso helburu erreala izan daiteke intensitate pixka bat dutenak, betiere. Egunero entrenatzeko aukera ez dauka edonork, eta gure bizimodura moldatu behar ditugu entrenamenduak. Orain inoiz entrenatzen ez duenarentzat, askoz hobe izango da entrenamendu bakar egitea batere ez egitea baino. Bakoitzak bere bizimoduari egokitu behar dio entrenamendua, baina zerbait egitea oso garrantzitsua da.

Hasiberrientzat gomendiorik?

Oso zaila da inoiz ezer egin ez duenari zerbait gomendatzea. Hasieran oinarritzak ondo ikatea oso garrantzitsua da pertsona horrek aurrera egingo badu, eta horretarako bidelagun bat izatea ezinbestekoa dela uste dut. Bakarrik hasten direnean, askotan ariketak gaizki egiten dituzte eta frustratu egiten dira, eta azkenean ez du funtzionatzen. Onena hasieran inbertsio txiki bat egitea da denbora eta diru aldetik patroiak ikasi, beldurra kendu eta konfidantza hartzeko. Guk ez dugu ariketa hutsetan sinisten, mugimendu patroieta baino. Ariketak mila daude, baina teknikak ondo jakin behar dira. Bultzatze-



"Zenbat eta egitura indartsuagoa izan, gihar indartsuago eta funtzionalagoak izan, hobeto".

ko patroia, tiratzekoa, bisagrena, *sentadilla*... Behar bezala landu eta entrenamendu funtzionala egin behar da.

Nola egin dezakegu lesioen prebentzioa?

Zenbat eta egitura indartsuagoa izan, gihar indartsuago eta funtzionalagoak izan, hobeto. Babestuago egongo gara eta arrisku gutxiago izango ditugu. Oreak izatea ere beharrezkoa da. Hala ere, denok lesiona gaitezke, jaki-

na, baina prebentziorako aurrez aipatutako guztia kontuan hartu behar da eta indar entrenamenduari garrantzia eman.

Zuek Zuheganen nolako lesioak ikusten dituzue?

Bizkarreko mina, lunbarretako mina, belaunetako lesioak, sorbaldetako arazoak eta tendinopatiak, orokorrean. Errekupera daitezke, baina lana egin behar da eta prozesu luzeak izan ohi dira. Lesiotik errekeratzen la-

gundu dizun hori ez uztea funtsezkoa da mina berriz buelta ez dadin. Jarraikortasuna eman behar zaio.

"LESIOTIK ERREKUPERATZEN LAGUNDU DIZUN LAN HORI EZ UZTEA FUNTSEZKOENA DA"

Udazkenera arte luzatuko da ikastaroa

Hasieran, bitrebakuntza saio ziren egitekoak. Baina 140 lagunek eman zuten izena eta entrenamendu saio horiek ugaritzea erabaki zuten. Maiatzekoak osatu eta gero, hauek izango dira hurrenak.

- Ekainak 7 eta 28: 56 urtetik gorakoak.
- Urriak (*): 40 urtetik 48 urtera bitarteko taldea.

Azaroan (*): 16 urtetik 40 urtera bitarteko taldea.

(*) Oharra: urriko eta azaroko datak aurrerago zehaztuko dituzte eta orduan jakinaraziko zaie noiz izango diren izena emandakoei.

Informazio gehiago, Oiar-do kiroldegian:

- 943 37 24 98
- kirola@usurbil.eus



Ekainaren 7an eta 28an egingo dira hurrengo entrenamenduak.



Bilboko EITBren egoitzan egin zen kaixomundua.eus lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

"Heziketa sexuala eta emozionala sustatzeko baliabide bat sortu dugu"

MADDI EGIZABAL ETA MALEN AIERBE AZTARNAK.EUS SORTU DUTE

Aztarnak.eus webgune berria martxan jarri eta kaixomundua.eus lehiaketan saritu dituzte bi herritarrek. Lehenak proiektu pertsonala mamitu du, eta bigarrenak webgunea sortu. Egitasmoari buruzko xehetasunak eskaini dizkigute.

Saria jaso berri duzue kaixomundua.eus atarian webguneen lehiaketa irabazita.

EITBtik gatzoz oraintxe, gainera. Jende gaztea mugikorra erekin jaio da, mugikorra ezinbestekoa den mundu batean. Horri probetxua ateratzen, ordea, ez dute asmatzen askok. Atari horretan, webguneak garatzea sustatzen dute DBH, batxilergoan eta Lanbide Heziketan webgune bat garatzea. Beraz, horretara aurkeztu ginen eta epaimahaiak garailetzat hartu gintuen. Ni Lanbide Heziketan nabil, eta beste kide batekin osatu dut proiektua. Edozein gairekin egin zitekeen, euskaraz betiere, eta guk zerbait erreala egin nahi genuen,

webgune bat behar zuen norbaitekin lankidetzan. Izan ere, urtebetez domeinua eta hostinga oparitzen dizkiete partehartzaileei. Puntu horretan sortu genuen aztarnak.eus.

Aztarnak.eus webgunea martxan jarri duzue. Maddi, zu zara proiektu hau bultzatzen ari dena. Zertan datza proiektua?

Proiektu hau da heziketa sexuala eta emozionala erabiltzeko baliabide modura hezkuntzan eragiteko. Zertan nahi da eragin hezkuntzaren bidez? Batetik, indarkeria matxistaren prebentzio lana egin eta bestetik, haur eta nerabeen ongizate emozionala bermatu. Nire aletxoia jarri nahi nuen

ardatz hauetan. Ez da lan erraza, baina alderdi horiek zaintzea eta bermatzea da helburua.

Hezkuntza Komunitateko eragilei zuzendutako proiektua da.

Nik orain arte lan egin dut haur, nerabe zein helduekin (guraso, hezitzaile...) elkarte

"HAURREK ETA NERABEEK ASKOZ GEHIAGO IKASTEN DUTE EREDUTIK, ETA EZ ESATEN DIEGUNETIK"

batzuen bitartez. Orain helburua neure kabuz lan hori egitea da. Nire proiektua helduekin lan egitera bideratu nahi nuen nagusiki, nahiz eta haur eta nerabeekin ere lan egin ikastetxeetara hurbildu eta tailerrak eginda. Hezkuntza komunitateko eragileak formatu edo baliabideak ematean zentratuko naiz, gero eurek tresnak izan ditzaten egunerokoan erabiltzeko. Heziketa sexual eta emozionala beti egiten dugu, nahi edo ez nahi, kontziente izan edo ez... hartueman bat dagoen uneoro egongo da. Helduekin gaiak lantzean formakuntza-tailerren bidez egin ohi da, baliabide praktikoak ere ematen zaizkie eguneroko eskuhartze eta jardunean aplikatzeko. Arlo teorikoa gain, Aztarnak-en esentzia da pertsona erdigunean jartzea eta gertatzen ari zaie-na aztertu ahal izatea. Bai eta praktikoki ere baliabideak ematea. Askotan iruditzen zaigu modu teorikoan lantzea nahikoa dela, baina norberaren filtertik pasa behar den zerbait dela iruditzen zait. Norbera da tresna; heldua da tresna. Liburu batek jakina lagunduko dizula formatzen, baina tresna pertsona bera da. Formakuntza-tailer hauetan pertsonarengan hausnarketa sortzea da asmoa, begirada aldaketa bat egitea eta horrek ondorengoengan sortuko du aldaketa. Leku erreala batetik abiatutako prozesua denez, hori zuzenean artatzen denez, gerora integrazioarako aukera ematen du eta horretan islatzen da. Haur eta nerabeek askoz gehiago ikasten dute eredutik, eta ez esaten diegunetik.

Orain arte egin duzunarekin konparatuta, lan egiteko modua oso ezberdina da?

Ezin uka daiteke, eta gustatuko litzaidake erdigunean jartzea ni formatu naizela gehienbat lan egin dudana lekuetan. Lanean ikasi dut egiten, teoriatik haratago. Neure gaurko begirada osatu dut egon nai-

—> zen leku horietan ikasi dudan horretatik eta proiektu hau neure begiradatik sortu denez, bada neure begiradatik esparru desberdinetatik ateratzen dudana horren emaitza edo islada. Uste dut polita dela helduei bideratutako proiektua izatea, ez dudalako beste leku batzuetan ikusi. Fokua haur eta nerabeengan jarritako esparruetan egin dut lan, eta neure proiektu pertsonalak helduetan dauka jarritako gehiago. Hezkuntzatik eragitea ere oso garrantzitsua dela iruditzen zait, ni neure hezkuntza arlotik etorri naizelako, eta hezkuntzan eragitea zein garrantzitsua den siniste horretatik. Neure bereizgarria da komunitatetik eragitean sinisten dudala; begirada bateratu batetik (guraso, hezitzaile...) eta orohar hezkuntza komunitateko eragileak bateratuta komunitatean eragin positiboa izate horretan. Indarkeria matxistarik gabeko eta ongizate emozional batean oinarritutako gizarte eraikitzea denon ardura da. Askotan ardura hori gurasoengan bakarrik jartzen da edo hezitzaileengan, eta iruditzen zait garrantzitsua dela salto egitea komunitateari begiratzeko. Neure ibilbidearen islada dira pentsamendu horiek eta feminismoa ardatz hartuta lan egitea, eta egun, psikologia ikasten ari naiz begirada hori ere txertatzeko heziketa sexual eta emozional horretan eta eskuhartzeetan. Proposamen berria dela uste dut. Horrek ez du esan nahi hobea edo okerragoa denik, baina nik ezingo nukeen sortu neure ibilbiderik gabe. Eskertza hori mahai gainean jarri nahi nuke komunitatetik asko ikasi dudalako eta komunitateak eman didan horretatik osatu naizelako neure ere. Ziklo moduko bat da: komunitateak eman didana itzuli nahi diot komunitateari.

Jada hasi zara ekiten?



"Proiektu errealekin lanean egin nahi genuen lehiaketara aurkeztean".

Zain egon naiz webgunea mar txan jartzera hasi ahal izateko. Orain arte, gurasoekin aholkulari lanetan aritu naiz, lehenago ezagutzen nituen guraso horiekin. Kate horiek ez ditut moztu proiektua sortu bitartean. Nire asmoa alderdi guztietan martxan jartzea da lehenbailehen.

Malen, zu webgunearen diseinuan aritu zara lanean. Nondik jaso dituzu ideiak?

Lehen esan bezala, proiektu errealekin lanean egin nahi genuen lehiaketara aurkeztean. Urtebetez domeinua eta hostinga ematen dituzte eta gero, erabilerarik ez badu, ez dute ikusgai jartzen webgune hori. Guri iruditzen zitzaigun behin lanean hasita, eta webgune oso bat sortzen hasita, proiektuak erreala behar zuela. Maddiren proiektua asko gustatu zitzaigun komunitateari.

"ONGIZATE EMOZIONALEAN OINARRITUTAKO GIZARTEA ERAIKITZEA DENON ARDURA DA"

tean eragina duelako, eta proiektuak biltzen dituen balioak ere oso garrantzitsutzat jotzen ditugulako. Plataforma Anitzetako Aplikazioen Garapena izeneko goi-mailako ziklo bat egiten ari naiz programazio arloan, eta ikasten ari naizena aplikatzeko ondo etorri zait proiektu honetan sartzea. Maddi eta bion bideak nahigabe elkartu dira. Lehiaketan parte hartu behar nuela esan nion anaiari eta ea webgune bat behar zuen nork ezagutzen zuen. Berak aipatu zidan Maddik proiektu bat zuela eskuartean, eta deitu egin genion. Hala hasi zen gure elkarlana.

Zuen bideak banandu egingo dira orain?

Malenek egin du webguneari dagokion guztia, marka-irudia eta abar. Lan zoragarria egin du Malenek; oso ondo zaindu

"ESKER HITZAK BAINO EZ DITUGU BIDEAN LAGUNTZA EMAN DIGUTEN GUZTIENTZAT"

ditu xehetasun guztiak. Oso polita izan da elkarlanean ari zena. Bide hau bakarrik egiteko aurreikuspenarekin hasi nuen, baina orain elkarlanean egindako proiektu hau ez nuke ezergatik aldatuko. Nik, jakina, Malenen zerbitzuak erabiltzen jarraituko dut alderdi teknikoan, baina lagundu dit beste aspektu batean ere, alderdi humano batetik. Sorkuntza ibilbidean ardatzak jartzen lagundu dit eta forma ematen. Malenen begirada jasotzea oso interesgarria izan da niretzat. Kolaboratzaile asko izan ditut lagun. Emakumeon Etxean elkartu ginen hainbat emakume eta simulazioa egin genuen tailer batean argazkiak izateko webgunerako. Webgunea oso ederra da Malenen lanagatik, lehiaketak emandako indarragatik eta argazkiak ateratzeko izandako momentu horiengatik. Esker hitzak baino ez ditut bide honetan laguntza eman didaten komunitateko kide guztientzat.

Aztarnak-en hastapenetan egotea plazera izan da niretzat. Alderdi tekniko lantzeko proiektuak zehaztuta egon behar du, eta bidea elkarrekin egin dugu Maddiren ideiarekin itxura bat jarrita.

Liga irabazita hartuko du erretiroa Esther Arrojeriak



Elx taldea garaitu berriro jaso zuten Ligako garaikurra.

Atticgo Elxi taldeari 24-26 irabazi ondoren, Guerreras Iberdrola Ligako titulua eskuratu du Bera Bera eskubaloit taldeak, Esther Arrojeriaren agurreko partida izan zen, bide batez. Kaleazko jokalaria izan zen, hain zuzen, azken gola egin zuena. Ondorioz, hamargarren ligako titulua eskuratu du Bera

Bera eskubaloit taldeak aste-buruan.

Bera Berak aditzera eman duenez, "denboraldirik onena" osatu du Donostiako eskubaloit taldeak. Izan ere, "Superkopa Iberikoarekin, Koparekin eta European Leagueko final-laurdenekin" agurtuko dute 2024-25 denboraldia.

Eskubaloit Eskola jarriko da martxan hurrengo denboraldian

Eskaintza berrituko du Usurbil Kirol Elkarteak 2025-26 ikasturtean. Izan ere, eskubaloit taldeen bilgunetik iragarri dutenez, Eskubaloit Eskola sortu asmo dute. NOAUA!ri aurreratu diotenez, aurrez errendimendu mailako alebirekin egin izan dute halakorik. Aurrerantzean, uda ostean, apustu hau sendotu asmo du Usurbil K.E.-k. "Eskubaloit eskola honetan, haurrek eskubaloiaz gozatzeko eta talde giroan ondo pasatzeko aukera izango dute". 2014-17 urte artean jaiotakoei zuzendua egongo da.

"Ikasturtearekin batera hasiko ginateke eskubaloiko entrenamendu hauekin eta astero entrenamendu bat izango lukete, ostiraletan 16:45-17:45 artean. Horrez gain,



Hilaren 27an amaituko da izen-ematea.

hilabetean behin, partida bat jokatuko dute beste klub baten aurka". Izena emateko epealdia zabaldu du Usurbil K.E.-k. Horretarako, ekainaren 27a baino lehen osatu beharko da galdetegi hau: <https://forms.gle/YhCaSr6Fe7Tszay1A>

Imanol Agirretxe, Sanseko entrenatzaile laguntzailea

Jon Ansotegi, lehen taldeko hirugarren entrenatzailea izan dena orain arte, Sanseko lehen entrenatzailea izango da datorren denboraldian. Ansotegik Imanol Agirretxe izango du aulkian laguntzaile. Usurbildarra lan horretan ari da azken asteotan, Iosu Rivas Sanseko egungo entrenatzailearen alboan.

Jon Ansotegik futbol jokalaria izateari utzi zuenean, teknikari lanetan hasi zen Realeko harrobian. Azken zazpi denboraldietan lehen taldeko staffean egon da.

Iosu Rivasen albokoa da gaur egun

Imanol Agirretxek hamar denboraldi eta 272 partida jokatu zituen Realaren lehen taldearekin, eta harrobi txuri-urdienean hasi zen lanean, kadete adinetik Sanseraino aurrela-



Iosu Rivas eta Imanol Agirretxe.

riekin bakarkako lana eginez. Aldi berean, Imanol lehen taldetik utzita ateratzen ziren jokalarien ardura zuen. Azken asteotan, Sanseko Iosu Rivas entrenatzailearen laguntzaile gisa ari da lanean.

Datorren denboraldian, Jon Ansotegiren bigarrena izango da Sansen.

Usurbil FTko Futbol Eskolako izen ematea zabalik da



LH3 eta LH6 bitarteko haurrei zuzendua dago Futbol Eskola.

2025-2026 denboraldiari begira, Usurbil FTk Futbol Eskolan izena emateko epea ireki berri du. "LH 3 eta LH6 bitarteko haurrentzat dago zuzenduta", prentsa-ohar bidez jakinarazi dutenez. "Futbol Eskola ezagutzen ez duten

familia berrientzat bilera bat egingo da ekainaren 12an (osteguna). Bilera Harane futbol zelaian izango da, 18:00etan, eta bertan azalduko dira Futbol Eskolaren nondik norakoak eta izena emateko zer egin behar den".

Usurbil KE-ko senior neskak Gipuzkoako Kopako txapeldunak

Andoainen jokatu zen finala eta usurbildarrek Bergara KE taldearen aurka nagusitu ziren. 31-22, azken emaitza.

Bigarren garaipen asteburua Usurbil Kirol Elkartearentzat. Senior nesken taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi zuen larunbatean Andoaingo Allurralde kiroldegian jokatutako neurketan.

Finala Bergara K.E.-koekin lehiatu zuten Usurbilgoek. Jokalarien taldean ziren Oihane Carro Solaberrieta, Eider Goikoetxea Liceaga, Uxue Alustiza Pikabea, Intza Ruiz Orotegi, Izaro Arruti Tapia, Julene Herrador Aguado, Nagore Lertxundi Olazabal, Uxue Diez Lure, Izaro Lopez Erron-

dosoro, Udane Valin Salaberria, Nahiene Garcia Usandizaga, Maider Valin Salaberria, Maria Davila Zaldia eta Libe Garcia de Eulate Soroa.

Hasieratik aurreratu ziren markagailuan

31-22 izan zen neurketako azken emaitza. Finaleko lehen zatitik hartu zieten aurre Usurbilgo eskubaloi jokalariek Bergarakoei. 14-9 emaitzarekin amaitu zuten lehen tarteak; bigarreneko azken emaitza, aipatu moduan, 31-22 izan zen.



Usurbil KE taldeko senior nesken taldea, Kopa irabazi berritan.

"Mila esker denboraldi osoan etorri zareten guztioi"

Andoaingo finala irabazi eta gutxira, Usurbil KEko talde txapeldunak mezu bat zabaldu zuen Instagram sarearen bitartez: "Mila esker atzoko

partida ikustera etorri zireten guztioi eta denboraldi guztian zehar bertan izan zaretenoi!

Urbil merkataritza guneari ere mila esker beste behin ere, zuen laguntzagatik!"

Usurbilgo eskuz binakako txapelketa

Nagusien txapelketa final laurdenetan da. Finalak Santxabeletan jokatuko dira.

Ekainak 6, ostirala, 18:30

Jubenilak

Zabala- Alejo

Aburuza- Elola

Nagusiak (Final 1/4)

Santxo- Urruzola

Cestau- Erasun

Salcedo- Lazkoz

Alberdi- Albeniz

Ate irekien eguna boleibol taldean

Emakumezkoen Euskal Ligan talde berria dutela jakinarazi dute Usurbilgo Boleibol taldeak. Ate irekien egunak antolatu dituzte ekainean:

Euskal Liga 2 neskak eta Gipuzkoako jubencil femeninoak:

• Ekainak 11 (16:30/18:30)

• Ekainak 12 (17:00/19:30).

Izena emateko 693 240 235 telefono zenbakira deitu behar da. Informazio gehiago usurbilboleibola@gmail.com helbidean jaso daiteke edota Oiarde kiroldegian.

Uxue Trail, astebete barru

Mendi lasterketa solidarioaren bosgarren edizioarako izena emateko aukera duzue oraindik. Lau modutan parte hartu ahalko da ekainaren 15eko elkartasun ekimenean:

V. Uxue Trail

• Eguna: ekainak 15, igandea.

• Ordua: 09:00.

• Usurbilgo frontoian.

• Izena ematea: ekainaren 14ko gaueko 22:00ak arte,

kronoak.com atarian. Egunean bertan ere eman ahalko da izena.

• Tarifak:

-Uxue Trail Luzea (20 kilometro): 25 euro.

-Uxue Trail Motza (11,5 kilometro): 15 euro.

-Uxue Paseoa (5,5 kilometro): 12 euro.

-Dortsak solidarioa: donazioa.

Oharra: egunean bertan izena eman ahalko da, 5 euro gehiagoren truke.

Aginagako adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko egitasmoa

Udalak bilera bat deitu du ekainaren 11rako. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, Eliza Zaharrean.

Udalak eta Zabalduz kooperatibak elkarrekin abiatutako proiektuak 65 urtetik gora izan eta bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen aginagarren zaintza hobetu eta beren komunitatearekin lotzea da egitasmo honen helburua.

Proiektuaren nondik norakoak aginagarrei azaltzeko deialdia egin du Usurbilgo Udalak: ekainaren 11n izango da, asteazkenarekin, arratsaldeko 18:00etan, Aginagako Eliza Zaharrean.

Aginagan martxan jarriko den egitasmoa Transis Lab mugaz gaindiko proiektuaren barruan dago, zeina Interreg Poctefa Europako programak babestu eta Europako funtsekin finantzaturik dagoen. Sei esperientzia pilotu jarriko dira abian lurralde ezberdinetan, Pirinio Atlantiko eta Garaietan,

Nafarroan eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoan; Aginagako Eusko Jaurlaritzak sustatu du.

"Arreta eta zaintza eredu publiko-komunitario berri-tzaile bat sortzea da proiektu honen helburua, adinekoen beharrei modu eraginkor eta iraunkorrean erantzungo die-na, ingurune bakoitzera egokitutako zerbitzu eta teknologia publikoen garapena sustatuz, gizarte-sarea indartuz eta adinekoen bizi-kalitatea hobetuz". Betiere, "ikuspegi komunitario, prebentibo, parte-hartzaile, hurbil eta pertsonalizatuarekin", udal iturriek zehaztu dutenez.

Bilan-ildo izango ditu proiektuak. Batetik, bakardade egoera hauskorrean egon daitezkeen pertsonentzako plan pertsonalizatuak egingo dituzte, euren ongizatea eta



Eusko Jaurlaritzak sustatu duen ekimen honek Europako funtsen laguntza du.

gizarteratzea bultzatzeko, bakardadeak pertsonengan sortzen duen narriadura atzeratzea helburu. Bestetik, sentibilizazioan eta aktibazioan oinarrituko den lanketa komunitarioa egingo da: zaintza sare komunitarioak indartzea izango da helburua, eta zenbait kasutan, berriak sortzea.

Zabalduz kooperatibarekin elkarlanean

Udala Zabalduz kooperatibarekin batera ari da proiektua garatzen: kooperatibako bi kide ari dira lanean. "Izatez,

zenbait hilabete daramate lanean", udalak aditzera eman duenez. "Bakardade egoera ez-hautatuaren inguruko galdetegia osatu zuten, eta herriko hainbat eragilarekin elkarriketak izan dituzte. Zehazki, 110 lagunek ekarpenak jaso zituzten galdetegi bidez, eta ia 50 elkarriketa egin zituzten: diagnostiko horren emaitzak irailean aurkeztea aurreikus-tzen da".

Orain, adineko aginagarren-gana gerturatu eta horiek eza-gutzea izango da hurrengo urratsa.



NOAUA

Txokoaldeko zubia itxita aurkituko duzue

Hasi dira Txokoaldeko Altzonazko zubia birgaitzeko lanak. Auzorako sarbide nagusia itxita, ibilbide zirkular alternatiboa erabilgarri dago Txokoaldera sartu nahiz bertatik irteteko. Nondik nora joan daitezkeen jakiteko seinalaztapena egokitu dute bidegurutzeetan.

Udal dirulaguntza ebazpenak

Hainbat dirulaguntza deialdiren ebazpenak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak egunotan. Hemen dituzue hainbat xehetasun:

Maiatzaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

- Kirol egokituko jardueretarako dirulaguntzak: eskaerarik ez.
- Kirol elkarleenak ez diren kirol jardueretarako dirulaguntzak: 9 eskaera, 4.000 euro.
- Kirol elkarleen ohiko egitasmoetarako dirulaguntzak: 6 eskaera, 120.000 euro.

Maiatzaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

- Gizarte zerbitzuetako dirulaguntzak: 20 eskaera, ia 12.000 euro.
- Baztertze sozialeko arriskuan dauden senideentzako dirulaguntzak: eskaerarik ez.
- Desgaitasuna edo mende-kotasuna duten adin txikien osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzak: eskaera bat, 400 euro.
- Nekazaritza eta abeltzaintza alorreko dirulaguntzak: 16 eskaera. 11 onartuak (guztira, 19.270,77 euro), 5 eskaera baztertutak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo erdigunean 3 logelako etxebizitza eta garaje bat bat dauz kagu alokatzeko. Etxe osoko gelek argi naturala dute. 658706447.

San Esteban kalean 3 logelako etxe bat alokatzen dugu. Maiatzan hartu ahal izango da. Animaliak ez dira onartzen: 630 675 785.

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldaria behar da. Astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. Harremanetarako: 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati asteen hirutan klase partikularrak emateko. 647 742 588.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa lanak edo ume zein helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila nabil. Erreferentzia onak dauzkat. Goizetan 16:00ak arte lan egiteko disponibilitatea. 604302785

Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egiteko lan bila nabil. Zaintzaile titulua daukat eta interno moduan edo orduka lan egiteko disponibilitatea. 631654743

Udako hilabeteetan goizez (Ikastolako oporretan), LHko ikasle bati

ingeleseko klaseak emateko norbaiten bila gabilta. Klaseak aurrez aurrekoak eta batez ere mintza praktika egiteko nahiko genuke. Interesatuak deitu 645735556

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua 747446091.

Ostalaritzan edota garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 613586716

Orduka edo astelehenetik ostiralera eta egunez aritzeko lan bila nabil. Etxeko lanak, umeak zein helduen zaintzan aritzeko prestutasuna. 614.349 021.

BESTELAKOAK

2001. urtetik 2019. urte arteko Sargado Eguneko baso grabatuen bilduma daukat. 943 363 788.

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. Harremanetarako: 615758476.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Lan eskaintza
Aginagako Eskolan

"2025-26 ikasturterako Aginagako eskola txikian goizeko zaintza egingo duen pertsona bila gabilta", Aginagako Eskolatik ohartarazi digunez. Ordutegi honetan egin beharko du lan: goizeko 8:00etatik 9:30era, astelehenetik ostiralera. Interesdunek bidali kurrikuluma helbide honetara: gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus

Zikiro janerako
txartelak

Gerturatzen doaz Usurbilgo jaiak. Uztailaren 1etik 6ra ospatuko dira aurtengoan, harriera jendetsua izan ohi duten ekitaldiekin; tartean, zikiro jana egingo da. Txartelak, ohi bezala, aurrez, ekainaren 15ean jarriko dituzte salgai 12:00etan Aitzaga elkartearen. Helduek 30 eurotan eta gazteek zein langabetuek 20 eurotan eskuratuko dituzte.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

HILDAKOAK



Martin Larrañaga Bajineta
Maiatzaren 30ean hil zen, 80 urterekin.

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitaratu. Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 06

ZUBIETA Uda Fest 2025

16:45 Antzerkia.
17:15 Zementxo Bustiblai.
18:15 Pintxo lehiaketa eta tortilla patata lehiaketa.
19:30 Euskal dantza emanaldia.
Ondoren afari-merienda eta Zubieta talentu bila.
Zubietako plazan.

LARUNBATA 07

USURBIL Gerraren memoria ibilbidea

11:00 Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 08

USURBIL Zumartek 40 urte: kalejira

Altsasu-Usurbil Saxo taldeak.
12:00 Zumarte Eskolatik.

OSTEGUNA 12

USURBIL Solasaldia Sutegin

Idoia Garzesen "Kukuaren kantua" aztergai.
15:30 Sutegin.

USURBIL Zumartek 40 urte: Kantu Modernokoen kontzertua

18:30 Sutegiko auditorioan.



Jolaserako aukera ugari izango da larunbat honetan.

Udarregi ikastolaren egun handia

2024-25 ikasturtea amaitzeaz da eta ohi bezala, festa giroan bilduko dira udako oporraldian murgildu aurretik. Larunbat honetan ospatuko dute Ikastola Eguna:

Ekainak 6-13

• Haur Eskolak prestaturiko erakusketa Sutegin.

Ekainak 7, larunbata

• 10:00 LH1-2-3 jolasak ikastolan.

- 11:00-12:00 DBHko ikasleen erakusketa ikastolako laborategian.
- 11:00 LH4-5-6 jolasak.
- 12:15 DBHko ikasleen jolasak ikastolan.
- 12:15 HHko dantza emanaldia Mikel Laboa Plazan eta txarra egingo balu ikastolako frontoian.
- 14:00 Bazkaria frontoian.
- Jarraian, DBHko ikasleek antolatutako ikuskizunaren hasiera.

'Gerraren memoria ibilbidea'

Orain arte bildutako datu, dokumentu eta testigantzetan oinarrituta, Gerraren Memoria Ibilbidea sortu du Usurbil 1936 elkarteak. Larunbat honetan, 11:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Izen-ematea, 650usurbilbizi.eus web helbidean.

Bisita gidatuak

Ekainak 7, larunbata 'Gerraren memoria', ibilbidea.

- 11:00-12:15.
- Irteera: Mikel Laboa plazan.

Ekainak 8, igandea 'Museo irekia, Zume-ta estudioa', bisita gidatua.

- 11:00 - 13:15.
- Irteera: Sutegi.

Ekainak 21, larunbata 'Salbatore elizaren ondarea eta organo erakustaldia' euskaraz.

- 11:00 - 12:30.
- Salbatore elizatik.

Erreserbak:
650usurbilbizi.eus

UdaFest Zubietan

Ekainak 6, ostirala

- 16:45 Antzerkia.
- 17:15 Zementxo Bustiblai.
- 18:15 Pintxo lehiaketa eta tortilla patata lehiaketa.
- 19:30 Euskal dantzak.
- Ondoren... Afari-merienda eta Zubieta talentu bila!
- Zubietako plazan.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostiralekik - Larunbatera

Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27




ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com


·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK



943 36 91 39



www.noaua.eus



EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA LORTU ABANTAILAK!

OSASUN GIDA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es

Errekalde 59, Donostia 943 105 205



Irati Ibargoiien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA TEKARTERAPIA
ZORU PELBIKOA HAURDUNALDIA
PRESOTERAPIA PILATES TERAPEUTIKOA

**AZKEN
AURRERAPENAK
GURE ESKUTAN !!**
1. Erregenerazio
zelularra
azkartu.
2. Analgesia.
3. Antiinflamazioa.
= ERREKUPERAZIO
DENBORA ERDIRA
JEITSIZ.

irati.ibargoiien@gmail.com

@ irati_ibargoiien_fisioterapia

www.iratibargoiien.com

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170



943 53 92 66

623 46 26 58



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



C/ Alperroburu kalea, 1. BsB • T. 608 671 925 / 943 372 658

mabiokfisioterapia.com

[mabiok.fisioterapia](https://www.facebook.com/mabiok.fisioterapia)



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/22 PEZ.

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

